



Aseguru honen bermeei datzekien zerbitzuak emateko, aseguruak gertaeraren momentutik bertatik eskatu behar du esku-hartzea, 91 5724343 telefono zenbakira deituta. 24 orduko etengabeko zerbitzua.

GAZTE TXARTELA MOTAKO TXARTELEN TITULARRENTZAT
BIDAIRAKO LAGUNTZA ASEGURUA. ZK: 24977

LABURPENA

BERMEAK

SOS Seguros y Reaseguros SA-rekin kontratatutako baldintzen arabera, ASEGURATUAK izenburupean azaltzen diren pertsonen hemen jasotzen diren prestazioak jasotzeko eskubidea dute:

POLIZAREN ONDORIO DATA ETA EPEMUGA: 2019/01/01eko zero ordutik 2020/01/01eko zero ordura.

ASEGURU HARTZAILEA

EUSKO JAURLARITZA
DONOSTIA-SAN SEBASTIAN KALEA, Z/G
01010-GASTEIZ (ARABA)
IFZ: S-4833001-C

AURRETIAZKO XEDAPENAK

Poliza honen ondorioetarako, honela ulertzen da:

ASEGURATZAILEA.- SOS SEGUROS Y REASEGUROS SA, kontratu honen xede diren arriskuak estali eta kontratuan jasotzen diren prestazioak bermatzen dituena.

ASEGURATUAK.- Eusko Jaurlaritzak ematen duen GAZTE TXARTELEN (GAZTE TXARTEL EZ FINANTZARIOA) titularrak diren pertsona fisiko guztiak.

ASEGURU EREMUA.- Berme hau baliozkoa da Espainian eta munduko gainerako lekuetan, betiere Aseguratuaren ohiko bizilekutik 30 km-ko erradiotik harago denean.

TXARTELA EMATEN DUEN ERAKUNDEAK BERETZAT GORDETZEN DU ASEGURU HAU EDOZEIN UNETAN AZKENTZEKO EDO ALDATZEKO ESKUBIDEA

EZ DIRA BERMATUKO JARRAIKO 90 EGUNETIK GORAKO EGONALDIAK

ASEGURATUTAKO TXARTELAK:

GAZTE TXARTELA MOTAKO TXARTEL EZ FINANTZARIOAK, Eusko Jaurlaritzak emanak.

ESTALDURAK

Pertsonen arriskua (titularrak bidaian jazotako heriotza, istripu edo gaixotasunaren kasuan):

A. ASISTENTZIA MEDIKOA ETA ABERRIRATZEA:

A.1. ZAURITU EDO GAIXOTUEN ABERRIRATZEA EDO OSASUN GARRAIOA

Gertatutakoaren premiaren edo larritasunaren arabera, ASEGURATZAILEAK bere gain hartzen du ASEGURATUAREN garraioa –mediku-zaintza ere barne delarik, hala behar balitz– bizilekutik hurbil den Espainiako ospitale batera edo bere ohiko bizilekura, ospitaleratzetik ez denean behar. Ospitaleratzea ezin bada egin bizilekutik hurbil, ASEGURATZAILEAK bere gain hartuko du ondoren egingo den ASEGURATUAREN bizilekurainoko garraioa:

Garraioa:

Osasun-hegazkin berezia Europako herrialdeetarako edo Mediterraneo itsasoaren mugakide diren herrialdeetarako.

Linea erregularreko hegazkina, tren edo itsasontzia.

Anbulantzia.

Aberriratzea eskatzen ez duten gaixotasun onberen edo zauri arinen kasuan, garraioa anbulantziak edo beste edozein garraio bidez egingo da, behar dituen zaintzak eman daitezkeen tokiraino.

ASEGURATZAILEAK ez ditu ordezkatu premiazko laguntza ematen aritzen diren erakundeak, eta ez du bere gain hartuko zerbitzu horien kosturik.

Nolanahi ere, kasu bakoitzean ASEGURATZAILEAK izendatutako medikuari dagokio garraiatu edo ez erabakitzea, aurretik ASEGURATUARI galdetuta, hori tratatzen duen medikuarekin eta, hala badagokio, bere familiarekin adostu ondoren.

A.2. HILDAKO ASEGURATUAREN ABERRIRATZEA EDO LEKUALDATZEA

ASEGURATUA bidaia batean HILTZEN bada, ASEGURATZAILEA arduratuko da izapide guztiez eta lege- eta administrazio-baldintza guztiak betetz beharrezko eta derrigorrezko baliabideak jartzeaz. Hala, bere gain hartuko ditu HILDAKOA bere ohiko bizilekura garraiatzeak eragindako gastuak, eta baita hilonduraren eta zinkeko garraio-hilkutxaren gastuak ere.

A.3. LAGUNTZAILEEN ABERRIRATZEA EDO LEKUALDATZEA

Aseguratu aurreko bermeetan (1.a eta 2.a) azaldutako arrazoieta baten zioz itzultzen bada bidaiatik, eta horrek gainerako laguntzaileei galarazi egiten badie bidaia hasieran aurreikusitako bitarteko egitea, Aseguratzaleak bere gain hartuko du gainerako laguntzaileak euren ohiko bizitokira garraiatzeko ardura.

A.4. ADINGABEEN ABERRIRATZEA EDO LEKUALDATZEA

Aurreko kasuan, Aseguratuari laguntzen diotenak 18 urtetik beherako (edo adina edo osasun egoera dela-eta arreta berezia behar duten) seme-alabak baldin badira, eta ez badute bidaian laguntzeko familiarrik edo konfiantzazko pertsonarik, Aseguratzaleak pertsona bat jarriko du horien eskura, familiak aurretik hala eskaturik, ehorzte tokiraino edo Espainiako euren bizitokiraino lagun diezaion.

Adingabeen lekualdatze-gastuei dagokienez, Aseguratzaleak normalean aurreikusitakotik (treneko, hegazkineko, itsasoko zeharkaldiko eta abarretako txartelak) gorakoak direnak baino ez ditu bere gain hartuko.

A.5. GORPUZKIEI LAGUNTZEN DENAREN LEKUALDATZE GASTUAK

Aseguratuaren familiarrek izendatu eta haren herrialdean bizi den pertsonari Aseguratuak joan-etorriko txartel bat emango dio, gorpuzkiei laguntzeko, dela trenez (lehen klasean), dela hegazkinaz (turista klasea) edo Aseguratuak egokien irizten duen garraibide publiko edo kolektiboa erabiliz.

A.6. HILDAKOAREN LAGUNTZAILEAREN ITZULERA

Hildako Aseguratu bere bikotekidearekin, anai-arrebekin edo beraren edo bikotekidearen nahiz euren bien lehen graduko familiarrekin bidaiatzen balitz, Aseguratuak antolatuko du, gastuak bere gain hartuz, horien bizilekura iristeko itzulera, dela trenez (lehen klasean), dela hegazkinaz (turista klasean) edo Aseguratuak egokien irizten duen garraibide publiko edo kolektiboa erabiliz, betiere ezin badute jarraitu erabiltzen ari ziren garraibidearekin.

A.7. FAMILIA LAGUNTZA

"Ospitaleratutako Aseguratuaren laguntzailearen lekualdatzea" edo "Gorpuzkiei laguntzen denaren lekualdatzea" estaldura aplikatzearen zioz adingabe seme-alabak bakarrik geratuko balira familiaren etxebizitzan, Aseguratuak pertsona bat jarriko du hain zantzen, eta bere gain hartuko ditu Baldintza Berezietan azaltzen diren mugarainoko gastuak.

A.8. MEDIKU, EBAKUNTZA, FARMAZIA EDO OSPITALERATZE GASTUEN ORDAINKETA EDO ITZULKETA

Berre honen bidez, ASEGURATUAK bere gain hartuko ditu ASEGURATUAK bidaiatzean izandako ustekabeak istripu edo gaixotasunengatik sortutako gastuak, betiere estaldura honen baliozotasun epean gertatzen direnean eta muga jakin hauekin: Espainia barruan, 300 € arte; atzerrian, 3.000 € arte.

Aipatzen diren gastu horien itzulketa, dena dela, ASEGURATUAK, izan Gizarte Segurantzako prestazioengatik izan afiliaturik zen beste edozein aurreikuspen-erregimenengatik, jasotzeko eskubidea lukeen prestazioen osagarri izango dira.

Beraz, ASEGURATUAK konpromisoa hartzen du erakunde horietatik kobratu dezaten egin beharreko gestioak burutzeko eta ASEGURATUALEAK aurreratu izan duen edozein zenbateko itzultzeko.

A.9. ODONTOLOGIA GASTUAK

Premiazko odontologia gastuen muga 60 € da.

A.10. LEKUALDATUENTZAKO BIGARREN MEDIKU IRITZIA

Atzerirako iraupen luzeko desplazamenduan, erantsirik doan zerrendan (*) jasotzen diren gaixotasun larri bat lehen aldiz diagnostikatzen bazaio Aseguratuari, hark bigarren mediku-iritzi bat eskatu ahaliko dio Aseguratuarekin diagnostikoaren edo gaixotasunaren mediku-tratamenduaren gainean.

Bigarren mediku-iritzi hori aurrez aurre (kontsulta eta probak egitea, estalduraren mugara iritsi arte) edo agiri bidez (espezialistak eskura dagoen informazioa aztertu eta horren arabera Aseguratuaren galderari erantzunez) egin ahaliko da.

Agiri bidezko bigarren mediku-iritzia emateko, Aseguratuak bere ardurapean eta bere kontura igorriko ditu dauzkan mediku-txostenen, irudi bidezko miaketan, biopsien eta/edo bestelako diagnostiko-proben kopia.

Batean zein bestean, Aseguratuak izendatuko ditu kontsultore horiek, Espainiako edo Aseguratuaren jatorriko edo bizitokiko herrialdeko lehen mailako espezialisten artean edo asistentzia-zentro edo zentro mediku edo akademikoaren artean aukeraturik. Aurrez aurreko bigarren mediku-iritziaren kasuan, estaldutako diagnostiko-probak Aseguratuak izendatutako kontsultoreak agintzen dituenak izango dira, betiere estalduraren mugen barruan direla.

Prozesu osoan Aseguratu mediku baten zuzendaritzapean den osasun talde batek lagunduta eta informatuta egongo da, uneoro, eta kasua mediku horren ardurapean kudeatuko da.

Bigarren mediku-iritzia lehen diagnostikoa izan eta gehienez ere hiru hilabeteko epean eskatu beharko zaio Aseguratuarekin.

Berre horrengatik gastu guztien gehieneko muga Baldintza Berezietan ezarria dena izango da.

(*) GAIXOTASUN ZERRENDA

- Organoak ukitzen dituzten gaixotasun kardiobaskularrak (miokardio-infartua). Gaixotasun koronarioa (balbulopatia aurreratuak, gorputz-adarren iskemia kroniko larria) edo diagnostikorako prozedura inbasiboak edo birbaskularizazio koronarioko kirurgia (bypass-a) edo balbula edo hodieta esku-hartzeen gisako tratamenduak eskatzen dituztenak.
- Garuneko eta odol-hodietako gaixotasunak (garuneko odol-jarioa, garuneko infartua).
- Gaixotasun neurologiko, neurodegeneratibo eta neurokirurgiko potentzialki progresiboak (esklerosi anizkoitza, AEA).
- Parkinson.
- Alzheimer.
- Ikusmena galtzeko arriskua dakarten begietako afekzioak.
- Onkologia eta Onko-hematologia (minbizia).
- Giltzurrun-gutxiegitasuna.
- IHES.
- Nahasmendu autoimmunek.
- Organo-transplantea (bihotza, birrikak, gibela, pankrea, giltzurruna eta hezur-muina).
- Bizkarrezurreko ebakuntza kirurgikoak.
- Ospitaleratzea eskatzen duten konplexutasun handiko ebakuntza kirurgikoak (espezializatutako zirujauen esku-hartzea behar dutenak) gaixotasun edo patologia traumatologiko larriak tratatzeko.

A.11. HOTELEKO EGONALDIA LUZATZETIK ERATORRITAKO GASTUAK

Tratatzen duen medikuak, Aseguratuak izendatutako medikuarekin bat etorri, irizten badu aseguratuaren, gaixoaren edo zaurituaren egoeragatik ezin dela itzuli, Aseguratuak bere gain hartuko ditu hoteleko egonaldia luizatzeatik eratorritako gastuak. Egondia hiru izarreko edo horren baliokideko hotel batean izango da, gehienez 10 gauetz.

A.12. LAGUNTZAILEAREN LEKUALDATZEA ASEGURATUA 5 EGUN BAINO GEHIAGO OSPITALERATZEAGATIK

Aseguratuaren, gaixoaren edo zaurituaren egoerak aberriratzeko edo berehalako itzulera galarazten badu eta aurkitzen den tokian ospitaleratzea 5 egun baino gehiagokoa bada, Aseguratuak bere kontura jarriko du joan-etorriko txartel bat trenez (lehen klasea) edo hegazkinaz (turista klasean) aseguratuaren familiako kide bat edo hark izendatzen duen pertsona bat ospitaleratzearen ondoan egon dadin.

A.13. ATZERRIRATURAKO LAGUNTZAILEAREN EGONALDIA ASEGURATUA 5 EGUN BAINO GEHIAGO OSPITALERATZEAGATIK

Aurreko bermean azaltzen den atzerriko ospitaleratzea jazotzen bada, gainera, hiru izarreko edo horren baliokideko hotel bateko egondiko (gehienez ere 10 gau) gastuak abonatu dira.

A.14. OSPITALEKO ALTA ONDORENGO ITZULERAREN GASTUAK

Polizak estaltzen duen istripu edo gaixotasun batengatik ospitaleratutako izan ondoren –eta beraz, galdurik dute Espainiara itzultzeko txartela, itzulerarako ezarritako data eta orduan ezinezkoa zitzaielako zegoen garraibidea hartzea– eta alta emana dioten Aseguratuaren itzulerako gastuak bere gain hartuko ditu Aseguratuak, Baldintza Berezietan ezarritako mugarekin.

A.15. AURRETIAZKO ITZULERA ESPAINIAN SENIDE BAT HIL EDO OSPITALERATZEAGATIK

Bermatutako bidaia egin bitartean Espainian Aseguratuaren ezkontidea edo lehen graduko ondorengo zein aurreko ahaideren bat hilko edo ospitaleratuko balitz, bermaturik dira garraio publikoa erabiliz bere ohiko bizilekura aurretiaz itzultzeagatik sortutako aparteko gastuak.

A.16. ASEGURATUAREN AURRETIAZKO ITZULERA BERE OHIKO ETXEBIZITZAN EDO LANEKO LOKALETAN EZBEHAR LARRIAGATIK

Aseguratuak bere gain hartuko ditu trenez (lehen klasean), hegazkinaz (turista klasean) edo Aseguratuak egokien irizten duen garraibide publiko edo kolektiboa erabiliz bere ohiko etxebizitzaraino iristen izandako lekualdatze-gastuak, ohiko etxebizitzan edo bereak diren edo alokatuta dituen lokal profesionaletan jazotako sute, leherketa, uhole edo lapurreta denean, baldin eta ezinezkoa balitz etxe edo lokaletan bizitzea edo arriskua balego horietan kalte handiagoak gertatzeko. Gertaerak Aseguratuaren bertaratzeko eta bidaiatzea ekarriko du, ezinbestean, betiere lekualdatzea bere garraibidez edo bidaiarako kontratatutako bitartekoak ezin balitz egin.

A.17. ETXEAN EMATEKO LAGUNTZA

"Osasun lekualdatzea edo Aberriratzeko medikoa" estaldura erabilinik Aseguratu ospitaleko zentro batean egon balitz eta bere ohiko etxebizitzan sei (6) egun edo gehiago mugitu gabe egoteko agindu izan bazaio, Aseguratuak asistentzia-plan bat prestatuko du, Aseguratuarekin adostasunarekin koordinatuz eta dagoen egoeran benetan eta berehala beharko dituen beharrek edo egokienak direnak kontuan hartuta, hala nola: irakasle partikularrak, asistentzia etxebizitzan, asistentzia geriatrikoa, etab. Asistentzia-planak Aseguratu eta ezbehar bakoitzeko polizaren Baldintza Berezietan ezarritako muga ekonomikoa izango du.

A.18. HIL ONDORENGO GASTUAK

Estaldurak bame hartzen ditu gorpuzkiei egokitzeko gastu osagarriak, hala nola hildura edo legezko betekizunen arabera lekualdatzeko behar den derrigorrezko hilkutua, 601 €-rainoko mugarekin.

A.19. ATZERRIKO LEGEZKO DEFENTSA GASTUEN AURRERAKINA

Istripu bat izateagatik Aseguratua legezko defentsa kontratatu beharrean bada, Konpainiak aurreratuko dizkio horrek sor dakizkiokeen gastuak, 601 € arte.

Aipatu aurrerakina eskatzen den herrialdeko legediaren mende geratuko da.

Aurrerakin gisa jasotzen den zenbatekoa bermatzeko, Aseguratuak aurretik eskubidea izango du aurrerakin hori egin izanaren (banku-taloia, eskudirutan edo zor-aintzatespen bidez) fede emango duen pertsona edo banku-erakunde bat izendatzeko Espainian.

ASEGURATZAILEAK ASEGURATUARI zor-aitorpena egitea aukeratzen badu, ASEGURATUA behartuta dago ASEGURATZAILEAK aurreratutako zenbatekoa itzultzera, gehienez ere bidaiari amaitu ondorengo 10 eguneko epean edo, nolana ere, aurrerakin-dataren ondorengo bi hilabeteren barruan.

A.20. ATZERRIKO FIDANTZA JUDIZIALAREN AURRERAKINA

Istripu bat izan eta hori gertatu den herrialdeko agintariek Aseguratuari fidantza penal bat eskatzen badiote, Aseguratuak aurreratu egingo du dagokion zenbatekoa, 4.808 €-ko mugaraino.

Aipatu aurrerakina eskatzen den herrialdeko legediaren mende geratuko da.

Aurrerakin gisa jasotzen den zenbatekoa bermatzeko, Aseguratuak aurretik eskubidea izango du aurrerakin hori egin izanaren (banku-taloia, eskudirutan edo zor-aintzatespen bidez) fede emango duen pertsona edo banku-erakunde bat izendatzeko Espainian.

Aseguratuak Aseguratuari zor-aitorpena egitea aukeratzen badu, Aseguratu behartuta dago Aseguratuak aurreratutako zenbatekoa itzultzera, gehienez ere bidaiari amaitu ondorengo 10 eguneko epean edo, nolana ere, aurrerakin-dataren ondorengo bi hilabeteren barruan.

ASEGURATZAILEAK ASEGURATUARI zor-aitorpena egitea aukeratzen badu, ASEGURATUA behartuta dago ASEGURATZAILEAK aurreratutako zenbatekoa itzultzera, gehienez ere bidaiari amaitu ondorengo 10 eguneko epean edo, nolana ere, aurrerakin-dataren ondorengo bi hilabeteren barruan.

A.21. ATZERRIKO OSPITALE FIDANTZAREN AURRERAKINA

Aseguratuak aipatutako gaitasun larri bat izan eta ospitaleratu beharrean bada, Aseguratuak aurreratu egingo du, eskudirutan, Aseguratu onartzeko ospitaleak eska dezakeen fidantza.

Aipatu aurrerakina eskatzen den herrialdeko legediaren mende geratuko da.

Aurrerakin gisa jasotzen den zenbatekoa bermatzeko, Aseguratuak aurretik eskubidea izango du aurrerakin hori egin izanaren (banku-taloia, eskudirutan edo zor-aintzatespen bidez) fede emango duen pertsona edo banku-erakunde bat izendatzeko Espainian.

ASEGURATZAILEAK ASEGURATUARI zor-aitorpena egitea aukeratzen badu, ASEGURATUA behartuta dago ASEGURATZAILEAK aurreratutako zenbatekoa itzultzera, gehienez ere bidaiari amaitu ondorengo 10 eguneko epean edo, nolana ere, aurrerakin-dataren ondorengo bi hilabeteren barruan.

A.22. BOTIKA BIDALKETA

Konpainiak kudeatuko du Aseguratu ospitaleraturik den herrialdean lortu ezin diren eta zeharo garrantzitsuak diren botiken bidalketa nahiz bidalketa.

Aipatu bidalketa eskatzen den herrialdeko legediaren mende geratuko da.

Dena dela, Espainiako Farmazeutikoen Zuzendaritza edo Kontseiluek esaten badu behar den produktua ez dagoela estatuko merkatuan, Konpainiaren ardura azkendu egingo da.

Botiken balioa eta horien bidalketako kostua Aseguratuaren kontura izango dira.

A.23. BISITA ETA INFORMAZIO MEDIKOA

Aseguratuak bere bizitokitik kanpoko herrialde batean izanik Asistentzia Berme honetan jasotzen ez den asistentzia medikoa eskatzen badu, Aseguratuak honela lagunduko du:

Ospitale edo mediku egokiena zein den azalduko dio Aseguratuari.

Pazienteari egoera diagnostikatzeko mediku kalifikatu baten izena emango dio, hark pazienteari eta haren familiari egoeraren berri eman diezaien. Itzulpen/interprete sistema bat ere jarriko du eskura Aseguratuaren eta medikuaren arteko harremanerako.

Aseguratuari mediku fakturak ordaintzen lagunduko dio. Hau orain, Aseguratuari bakarrik dagokio faktura horiek ordaintzearen erantzukizuna.

A.24. INTERPRETEA ISTRIPU EDO GAIXOTASUNAGATIK

Atzerrian izandako istripu edo gaixotasun larri batengatik gertaeraren lekuan interprete baten esku-hartzea behar balitz, Aseguratuak konpromisoa hartzen du interprete bat lehenbailehen Aseguratuaren esku jartzeko. Estaldura horren kostua Aseguratuaren kontura izango da.

A.25. OSPITALERATZEKO ADMINISTRAZIO IZAPIDEETARAKO ZERBITZUA

Aseguratuak arduratuko da Aseguratu ospitale batean onartua izan dadin egin beharrekotako administrazio-izapideez, polizaren estalduraren barruan dagoen arazotatik ospitaleratu beharrean denean.

A.26. ATZERRIRA BIDAIATZEKO INFORMAZIO ZERBITZUAK

Aseguratuak honako informazio hau eskainiko du Aseguratuaren eskariz:

Atzerriko herrialdeetara joateko txertoak eta bida eskarriak, eta TIMen (Travel Information Manual), hots, Bidaien Informazio Eskuliburuan, IATAko (Aireko Garraioaren Nazioarteko Elkarte) aireko lineak elkarren artean argitaratutako azken argitalpenen zehazten diren betekizunak.

Aseguratuak ez du bere gain erantzukizunik hartzen TIMen azaltzen den informazioaren zehaztasunaren gainean, ezta ere aipatu argitalpenen izan daitezkeen aldaketaren gainean ere.

Espainiak munduan zabalik dituen enbaxada eta kontsulatuaren helbide eta telefonoak, nonahi direla ere.

A.27. PREMIAZKO MEZUEN IGORPENA

Berme honetan jasotako ezbehar baten zioz Aseguratuak senideei premiazko mezu bat igorri beharrean bada, Aseguratuak arduratuko da hori egiteaz, Aseguratuak hala eskatuta.

A.28. HERRIALDEEN GIDA

Aseguratuak jomuga-herrialdeei buruzko informazio eguneratua jartzen du Aseguratuaren eskura, haren webgunera sartzeko aukera emanez. Webgunean azaltzen da gomendatutako txertoak zein inguru horretako gaixotasunei buruzko informazioa. Herrialde horretako osasun-asistentziari buruzko gomendioak eta larrialdietarako helbide eta harremanetarako telefonoak ere jasotzen dira, gehigarri modura. Informazioa gomendio orokorrekini osatzen da: kultura ezagariak, enbaxadak, moneta, tokiko jalegun nagusiak, eta klima.

B. BAGAJEA

B.1. BIDAIATZEAN AHAZTUTAKO ETA/EDO LAPURTUTAKO OBJEKTUEN BIDALKETA

Aseguratuak bidaiatu duen lekuan edo lekuetan objektuak ahaztu baditu, Aseguratuak antolatuko du eta bere gain hartuko du horiek Aseguratuaren etxebizitzara itzultzeko kostua, 601 € arte.

Berme hori, bidaiatzean lapurtu ostean berreskuratutako objektuei ere aplikatuko da.

B.2. GALDUTAKO EDO AHAZTUTAKO BAGAJEEN BILAKETA

Bagajeak galten badira, Aseguratzailak laguntza eskainiko du galdutako edo ahaztutako bagajearen bilaketa kudeatzen.

C. ERANTZUKIZUN ZIBILA:

Aseguratzailaren kontura izango dira Kode Zibilaren 1.902tik 1.910ra bitarteko artikuluen eta atzerriko antzeko xedapenen arabera Aseguratuak pertsona pribatua den aldetik eman beharreko diruzko kalte-ordainak, hark hirugarrenei, animaliei edo gauzei nahiz gabe eragindako kalte fisiko edo materialen gaineko erantzukizun zibilarengatik. Estaldura horretarako 60.000 €-ko kalte-ordaina ezartzen da, gehienez, ezbehar bakoitzeko.

Estalduratik kanpo geratzen dira erantzukizun zibil profesionala, ibilgailu motordunen erabilera eta zirkulaziotik eratorritakoa, eta edozein mota edo izaerako lehergailu eta armak erabili edo jabetzan izatetik eratorritakoa.

Estaldura honen aplikazio-eremua atzerria da; beraz, estalduratik kanpo dira Espainian gertatutako jazoera guztiak.

Salbuespen Orokorrak.

Estalduratik kanpo geratzen dira:

- 1.- ASEGURATUAK bidaiatu aurretik horien berri izan eta bat-batean larriagotzeko arriskua duten gaixotasunen berrerorialdiak.
- 2.- ASEGURATUAK mediku-aurrekariak izan eta bera jakinarenean gainean egonik bidaiatuz gero okerrera egin dezaketen egoera patologikoak.
- 3.- Haurdunaldiak. Hala ere, estalduta dira seigarren hilabete arteko ustekabeko konplikazioak.
- 4.- Hortzetako arazo akutuetan, hots, infekzio, min edo traumagatik premiazko tratamendu baten beharrezko direnetan, gastuak 60,00 € artekoak izango dira, gehienez.
- 5.- Mendingo, itsasoan edo basamortuan egindako pertsonen erreskatea.
- 6.- Arrisku handiko kirolak: mendizaleatasuna, eskalada, moto-krosa, motorrik gabeko hegaldia, delta hegala eta gisakoak.
- 7.- Eskiatzean izandako istripuak.
- 8.- Gaixotasun kroniko baten, edozein motako protesien eta ur termaleko osaketaren gastuak.
- 9.- 9,00 € azpitiko edozein mediku gastu.
- 10.- Bere buruz beste egiteak edo bere burua zauritzeak, droga- edo alkohol-intoxikazioak.
- 11.- ASEGURATZAILEA ez da arituko larrialdietako laguntza-erakundeak ordezkatzeko eta ez du bere gain hartuko horien kosturik.
- 12.- Hartutako Immuneskasiaren Sindromearen (HIES) gaixotasunak, eta alkoholismotik eta drogazaletasunetik eratorritako gorabehera guztiak.
- 13.- Aurretik ezagutzen diren gaixotasunen txerto eta kontrolak.
- 14.- Ur termalen eta Uva izpien bidezko osaketak.
- 15.- Fisioterapia eta kinesioterapia.
- 16.- Buruko gaixotasunak, eta psikoanalisi eta psikoterapia.
- 17.- Gudako, guda zibileko edo bahiketako arriskuak.
- 18.- Matxinada, jendearen zalaparta, terrorismoa eta sabotajea.
- 19.- Jabetza partikularrekoak izanik zerbitzu publikorako ez diren aireontzien erabilpena; helikoptero eta hegazkin txikien erabilpena fumigaziorako, suteen kontrako borrokarako edo salbamendu zerbitzurako.

POLIZA HARTZAILEAK LABURPEN HAU ASEGURATUEI EMAN BEHAR DIE. EUSKO JAURLARITZAK SOS SEGUROS Y REASEGUROS SA KONPAINIAREKIN SINATU DUEN 24977 ZK.KO POLIZA KOLEKTIBOAREN KONTRATUAN APLIKATUKO DIREN BALDINTZEN ATERAKIN BAT DA. KONTRATUA INTERPRETATZEKO ZALANTZARIK EGONEZ GERO, HORIETAN EZARRITAKOARI LOTUTAKO ZAIO, ZEINAK ASEGURATUEN ESKURA EGONGO BAITIRA ASEGURU HARTZAILEAREN EGOITZAN. ASEGURATZEN DIREN PRESTAZIOAK INDARREAN EGONGO DIRA AIPATU 24977 ZK.KO POLIZA INDARREAN DEN ETA ALDATZEN EZ DEN BITARTEAN, ETA HORI IRAUNGITZEAN EZEZTATUKO DIRA.